

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

- Zein da zure bezeroa?

Gure ustez, euskal nerabeak, musika euskaraz entzuteko gogoia dutenak eta errenta maila oso baxua dutenak gure bezero ezinhobeak izango lirateke.

- Zein dira bezero horien ezaugarriak?

→ Musikazaleak edo dantzazaleak (musika entzuteko eta dantzatzeko helburuarekin joango direlako diskoteka batera)

→ Festa gustoko duten pertsonak (ondo pasatzeko helburuarekin ideia hau garatua izan delako)

→ Errenta maila baxua dutenak (sarreraren prezioak merkeak izango direlako)

→ Euskaldunak izatea abantaila handia izango litzateke (euskal musika egongo delako eta errazagoa izango litzatekeelako guretzat musika hautatzea)

→ 16-18 urteko nerabeak (gazteen eremua delako eta musika ezagutzeko aukera gehiago daudelako)

→ Donostiarrak edo Donostiako eremu gertuetan bizi direnak (gehieneak alde zaharrekoak)

Ezaugarri guzti hauekin bat egiten badute, zalantzarik gabe gure bezerorik perfektuenak aurkituko genituzke. Gainera, gure bezero guztiek tratu egokiena jasango lukete eta horrela ez balitz, erreklamazio orriak jartzeko aukera ere posibleak izango lirateke. Aldiz, gure bezeroen jarrera onartezina bada, gure segurtasun zaindarien diskotekatik kanporatzeko eskubide osoa izango du eta behin baino gehiagotan pertsona berdinak/ berdinek eragozpenak sortzen baditu / badute, betirako kaleratua(k) izango litzateke / lirateke.